



BANDOA

UDALAK LAU (4) LANGABETU LANGILE KONTRATATUKO DITU

Udalak 4 langabetu kontratatzeke probak egin behar ditu, peoi-zerbitzu anitzetako kategoria daukaten pertsonak, 4 hilabete eta hamar egunerako eta lanaldi osoan.

Kontratua Nafarroako Gobernuak artero ematen duen dirulaguntzarekin lotuta egongo da: interes orokorreko eta sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko, toki entitateei langabeak kontratatzeke diru-laguntzak ematearen oinarrien arabera izango da

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak lanposturako baldintzak betetzen dituztenen zerrenda baliatuko dugu. Ondotik, hautespen probak gainditzen dutenekin zerrenda osatuko dugu puntuazioaren hurrenkerari jarraikiz

Hautespen probak egingo dira:

- a) Euskarazko proba: Sakanako Mankomunitateko teknikariek egingo dute martxoaren 14an Etxarriko Liburutegian goizeko 8:30tan. Titulua daukanak ez du proba hau egin behar, baina titulua aurkeztu beharko du martxoaren 13ko 13:00 baino lehen.
- b) Proba teorikoa: Lanpostuaren funtzioei buruzkoak eta euskaraz. Martxoaren 18an. Goizeko 9:00 Etxarriko Liburutegian. (20 puntu)
- c) Proba praktikoa: Lanpostuaren funtzioei buruzkoak eta euskaraz. Martxoaren 25ean. Goizeko 8:30tan Etxarri udaleko hiltegi zaharrean. (80 puntu)

Kontratatu beharreko pertsonak kolektibo hauen artetik hautatuko dira:

a) 2 Langabetu: Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak gizarteratzeko edo lan munduan eta gizartean txertatzeko ematen dituen diru-laguntzak jasotzen ari direnak. (RIS, PREPARA edo senideak) Baldintza hau kontratazioa egiten denean bete behar da (emateko erabakia edo baieztoko txostena). Gizarte Zerbitzuak konprobatuko du.

b) 2 langabetu:

- 50 urtetik gorakoak.- 30 urtetik beherakoak.-Desgaitasunen bat duten pertsonak, gutxienez %33ko desgaitasuna dutela aitortzen duen ziurtagiri baten bidez egiaztatua.-Luzaroko langabeak, kontratazio egunean gutxienez urtebete lehenagotik inskribaturik daudenak.

Deialdia web orrian edota udal bulegoan kontsultatu dezakezue.

Etxarri Aranatz, 2014ko martxoaren 5ean.

Alkatea: Jose Ignacio Bakalkoa Aristorena

